

# M.Uko Enpresa Zientzien Fakultateak Zilarrezko Q saria lortu du

2006/12/01

1.  
Fakultateak  
**Kalitatearen**  
**Sustapenerako**  
**Euskal**  
**Iraskundearen**  
**(Euskalit)**  
errekonozimendua  
lortu  
du,  
kudeaketaren  
praktikan  
lortu  
duen  
mailagatik



2.Euskalitek egindako kanpo ebaluazioak 400 puntu baino gehiago eman dizkio zentroari, **EFQM kalitatearen europar ereduaren arabera**

3. Eusko Jaurlaritzak datorren abenduaren 19an emango dio **Zilarrezko Qa**, hau da, 400 puntuak gainditzen dituzten erakundeak errekonozitzeko saria

## Zilarrezko Q

Enpresa Zientzietako Fakultateak datorren abenduaren 19an jasoko du Eusko Jaurlaritzaren saria, Kurasaalen egingo den ekitaldian. Kanpo ebaluazioaren prozesua erakunde baten kudeaketaren azterketa global eta sistematikoa da, aditu independenteek egina, eta erakunde batek kudeaketaren inguruan duen bikaintasun mailaren ikuspegi objektiboa ematen du. Enpresa Zientzietako Fakultateak datorren abenduaren 19an jasoko du Eusko Jaurlaritzaren saria, Kurasaalen egingo den ekitaldian. Kanpo ebaluazioaren prozesua erakunde baten kudeaketaren azterketa global eta sistematikoa da, aditu independenteek egina, eta erakunde batek kudeaketaren inguruan duen bikaintasun mailaren ikuspegi objektiboa ematen du.

Oñati, 2006ko azaroaren 30a. Mondragon Unibertsitateko enpresa Zientzietako Fakultateak **Zilarrezko Q** saria lortu du, kudeaketan kalitatea eta bikaintasuna lortzeko egindako lanaren errekonozimendu gisa. Kudeaketaren kalitatearen sari hori Eusko Jaurlaritzak ematen du, EFQM- Kudeaketaren Europako Bikaintasun Ereduari jarraituz, Euskalitek egindako kanpo ebaluazioaren ondoren 400 puntu gainditu dituzten erakundeentzat.

Enpresa Zientzietako Fakultateak datorren abenduaren 19an jasoko du Eusko Jaurlaritzaren saria, Kurasaalen egingo den ekitaldian. Kanpo ebaluazioaren prozesua erakunde baten kudeaketaren azterketa global eta sistematikoa da, aditu independenteek egina, eta erakunde batek kudeaketaren inguruan duen bikaintasun mailaren ikuspegi objektiboa ematen du.

Ibilbidea

Euskalitek egindako kanpo ebaluazioak Unibertsitateak irakaskuntza-ikaskuntza, ikerkuntza, etengabeko prestakuntza eta graduatu ondoko formazioan zein pertsonen kudeaketan izan duen bilakaera positiboa izan dela egiaztatzeko balio izan du. Horrenbestez, sariak indartu egiten du Enpresa Zientzietako Fakultatearen Misioa: jendartearen aldaketarekin duen konpromisoa eta aurrerapen humanistiko, teknologiko eta ekonomikoarekin aldeko ekarpena, ikasleei kalitatezko prestakuntza integrala eskainiz.

Misioaren oinarrian daude ikasleen ezaugarriak jendartearen

beharretara egokitzea, I+G+b-ko jardueren balio erantsia, langileen eta ikasleen lan baldintzak eta baldintza pertsonalak eta bokazio soziala.

Bikaintasunaren funtsezko kontzeptuak mota guztietako erakundeetan ezar daitezke, sektorea edo neurria dena dela ere, eta **EFQM-Bikaintasunaren Ereduaren funtsa dira**. Kontzeptu horiek dira:

- Emaizetara bideratzea
- Bezeroarengana bideratzea
- Lidergoa eta koherentzia
- Prozesu eta ekintza bidezko kudeaketa
- Pertsonen garapena eta inplikazioa
- Ikasketa, berrikuntza eta hobekuntza prozesu etengabea
- Erakundearen erantzukizun soziala

[www.mondragon.edu](http://www.mondragon.edu)

## V K Comunicación

*Informazio gehiago:*

1. **Xusane de Miguel Ortiz**
2. **Tel.:** 944 01 53 06. Mugikorra: 629 75 33 36.
3. **E-mail:** [xusane@vkcomunicacion.com](mailto:xusane@vkcomunicacion.com)